

DONOSTIAN ENPLEGUA SORTZEKO HELBURUAREKIN TOKIKO ENPRESEN ALDETIKO KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA PROGRAMA, ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZEN 2025EKO DEIALDI BARRUAN (2025EKO UZTAILAREN 31KO EHAA).

ATARIKOA

Donostia Sustapenak estrategia eta kudeaketa eredu berri baterako trantsizioaren aldeko apustua sendotu egin du 2024an, hirian berrikuntzaren erreferente bihurtzeko eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren rola bere gain hartzeko.

Ahalegin horretan, laguntza ematen die pertsona, enpresa eta proiektuei, pertsonalizazioa, kalitatea eta foku estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten gainerako eragile publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko asmo argiarekin.

Donostia Sustapenaren helburua da prestakuntza eta enplegu ibilbideak sortzen dituen eredu bat sustatzea, non ezinbestekoak izango baitiren ituntzea eta sareko lana, bai enpresa esparruarekin bai prestakuntza erakundeekin eta baita hirugarren sektorearekin ere.

Tokiko langabezia, oraindik ere, zaurgarriagoak diren zenbait kolektibotan kontzentratzen da: 2025eko abuztuko datuen arabera, Donostiak 6630 langabe erregistratu ditu eta desoreka bat dago emakumeen (% 57) eta gizonen (% 43) artean. Horrela, % 1,7ko genero arrakala bat gertatzen da hiriko emakumezkoen langabezia tasaren eta gizonezkoen langabezia tasaren artean.

Bestalde, datuen analisiak azaleratu duenez, iraupen luzeko langabeen kopurua nabarmena da (% 43,3), batez ere adin handiagokoen eta emakumeen artean.

Era berean, Donostiako langabeziaren % 57,4 45 urteko edo hortik gorako adineko pertsonen dagokie, eta horietatik % 57,5 emakumeak dira; berez, emakumeak gehiengoa dira langabeen kolektibo guztietan, 25 urtetik beherakoen artean izan ezik.

Azkenik, datuek argi uzten dute langabezia bereziki nabaritzen dela tokiko gazteen artean, batez ere 25 eta 34 urte arteko tartean.

Ondorioz, kolektibo horiek guztiak xede izan behar dira, hiriko enpleguaren bilakaera eta bertako biztanleriaren bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko.

Horregatik, 2024an, 1,5 milioi eurotik gora inbertitu ziren esparru horretan, sektoreko erakunde nagusiekin lankidetzan. Orientazio profesionalerako 1.743 zerbitzu eman zitzaizkien 746 pertsona bakarrei (% 56 emakumeak), bai profil kualifikatuei zuzendutakoak eta baita kualifikazio txikiagoko profilei zuzendutakoak ere. 1.227 enpleguren sorreran lagundu zen, eta 263 enplegu berri zuzen sortu ziren, ostalaritzaren sektorea izanda horien hartzaile nagusia, neurri batean, ostalaritza elkartearekin dugun harreman estua dela eta. Horrez gain, zuzenki diruz lagundu ziren kontratuen % 63 emakumeekin izenpetu ziren, eta % 57 35 urtetik beherakoekin.

Proiektu bereziki aipagarria izan zen UBA Ostatu Eskolaren kudeaketa eraldatzearen, enplegu eta lan berrikuntzarako aukera berriak sortzeko.

Pertsona horien enplegarritasuna eta lan merkatura sartzeko aukerak hobetzeko helburuarekin, Donostia Sustapenak kontratazioa suspertzeko behar diren estrategiak indartzea proposatzen du, hiriak bizi duen uneko langabezia testuinguruan, batez ere kolektibo zaugarrienarentzat. Horregatik, Donostia Sustapenak hiriko langabeak kontratatzeke deialdi berri hau jarri du abian.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile moduan izena emanda dauden hiriko **langabeak lan munduan txertatzen laguntzea**, jarduera zentroa Donostiako udal mugartean duten enpresetan, horretarako zenbait kolektibo jakinei zuzendutako laguntzak emanda.

a) Kolektibo hauetako langabeen kontratazio mugagaberako laguntzak:

-DSBE/bizitzeko gutxienekeo diru sarreraren titularrak edo onuradunak.

-35 urtetik beherakoak.

-Iraupen luzeko langabeak: iraupen luzeko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 540 egunetan enplegu eskatzaile moduan izena emanda egon direnak, bitartekaritza duen alta egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, betiere epe horretako 360 egunez gutxienez langabezian egon badira.

-55 urtetik gorakoak.

b) Aurreko a) atalean aipatzen diren kolektiboetakoak ez diren langabeen kontratazio mugagaberako laguntzak.

Helburu horretarako, zenbait laguntza jarriko dira martxan, lanaldiaren eta kontratuaren iraunaldiaren arabera zenbatekoekin, 4. artikuluan aipatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten ekonomia jardueretako sektoreetarako.

c) Jarraian adierazitako kolektiboetako artista, teknikari eta laguntzaile langabeak ikuskizun publikoetan eta iraupen mugatuko kontratu artistikoekin kontratatzeke laguntzak:

-DSBE/bizitzeko gutxienekeo diru sarreraren titularrak edo onuradunak.

-35 urtetik beherakoak.

-Iraupen luzeko langabeak: iraupen luzeko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 540 egunetan enplegu eskatzaile moduan izena emanda egon direnak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, betiere epe horretako 360 egunez gutxienez langabezian egon badira.

-55 urtetik gorakoak.

Helburu horretarako, zenbait laguntza jarriko dira martxan, lanaldiaren eta kontratuaren iraunaldiaren arabera zenbatekoekin, 4. artikuluan aipatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten ekonomia jardueretako sektoreetarako.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak jarraian adierazitako zenbatekoa bideratuko du laguntza hauetarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako dirulaguntzaren Oinarrietan eta enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko laguntza deialdia jasotzen duen 2025eko uztailaren 15eko Ebazpenean xedatutakoaren arabera:

LAUREHUN ETA HOGEITA HAMA KA MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (431.260,57€)

Donostia Sustapenak zenbateko hori aldatzeko eskubidea izango du, beharrezkotzat jotzen badu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduna izango da laguntzaren esleipenaren oinarria izan zen jarduera egingo duen pertsona edo esleipena legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere Oinarri hauetan eta, bereziki, laguntza mota bakoitzean xedatutako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen onuradunak pertsona fisiko edo juridikoak izan ahalko dira, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerrikoak, eta baita aurreko kasuetako nortasun juridikorik gabeko taldeak ere, behar bezala eratu badira ordenamendu juridikoaren arabera eta Oinarri hauetan xedatutakoa betetzen badute. Kanpo geldituko dira 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 14. artikuluan definitzen dituen ondare sozietateak.

Oinarri hauetan ezarriko dira egokiak diren laguntzak eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko moduak. Edonola ere, Dirulaguntzen Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, ondore hauetarako aplikagarria dela berariaz adierazita.

Ez zaie laguntzarik emango egoera hauetan dauden pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek zergen eta/edo Gizarte Segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak egunean ez dituztenak.
- Ebazpen irmo bidez jasotako zigorraren ondorioz dirulaguntzarik eta/edo laguntza publikorik jaso ezin dutenak, edo horretarako ezgaitzen dituen legeko debekuren bat dutenak, horren barne direla 1/2024 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik zigorra jaso dutenak.

Halaber, ezingo da laguntza jaso pertsona fisikoak edo onuradunak administrazio edo zigor arloko zigorra jaso badu sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakume eta gizonen berdintasunerako araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako epean zehar. Era berean, ezingo dute laguntza edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera indarreko berdintasun plan bat izan beharko luketen eta ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gora izanda, sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez dutenek, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.

- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorren bat dutenak.
- Aurretiaz emandako laguntzak erabat edo partzialki itzultzeke dituztenak, itzuli beharreko zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez bada.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea izango dute dagoeneko Administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein Administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrez gain, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahalko ditu, interesdunak horri aurka egiten ez badio. Aurka egitekotan, berriz, ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragintasan aplikazioaren bidez, Administrazio Publiko eskudunei kontsultatuko die zuzenki jarraian adierazitako informazioa, prozedura honen ebazpenerako eta ordainketetarako:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) historia.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko momentuan eta ordainketa bakoitza egiteko momentuan Udalaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren diru bilketarekiko egunean ez dauden onuradunek HAMAR (10) egun baliodun izango dituzte, jakinarazpena jasotzen dutenetik, obligazio hori bete izana egiaztatzeko.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Tokiko enpresatzat joko dira lan zentro eta jarduera ekonomikoa Donostiako udal mugartean duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Ezingo dira onuradun izan:

- % 25ean edo hortik gorako maila batean sektore publikoko erakundeek (sektore publikoko gisa ulertuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak,

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duenak, 3. artikuluan barne hartutako erakundeak), irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen mendekoak edo jabetzakoak diren erakundeak.

- Aldi baterako laneko enpresak.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Lan munduan txertatzea bultzatzeko helburuarekin, diruz lagunduko dira hiriko langabeen kontratazioak jarduera zentroa Donostiako udal mugartean duten enpresetan.

Emango diren laguntzen eta diruz lagundu daitezkeen gastuen gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

5.1 Kolektibo hauetako langabeen kontratazio mugagaberako laguntzak:

- Diru sarrerak bermatzeko errentaren/bizitzeko gutxieneko diru sarreraren titularrak edo onuradunak.
 - 35 urtetik beherako pertsonak.
 - Iraupen luzeko langabeak. Iraupen luzeko langabetzat joko dira *kontratatu aurretiko 540 egunetan enplegu eskatzaile moduan izena emanda egon direnak, BITARTEKARITZA DUEN ALTA egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, betiere epe horretako 360 egunez gutxienez langabezian egon badira.*
 - 55 urtetik gorakoak.
- a. Gehienez HAMAR MILA EUROKO (10.000,00 €) laguntza gizonei egindako lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
 - b. Gehienez HAMAIA MILA EUROKO (11.000,00 €) laguntza emakumeei egindako lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
 - c. Gehienez BOST MILA EUROKO (5.000,00 €) laguntza gizonei egindako lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
 - d. Gehienez BOST MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (5.500,00 €) laguntza emakumeei egindako lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.

Kontratazioak % 50etik gorako lanaldiarekin egiten badira, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko zenbatekoa) lanaldiarekiko proportzionala izango da.

5.2 Aurreko atalean aipatzen diren kolektiboetakoak ez diren langabeen kontratazio mugagaberako laguntzak:

- a. Gehienez ZORTZI MILA EUROKO (8.000,00 €) laguntza gizonei egindako lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- b. Gehienez ZORTZI MILA ETA ZORTZIEHUN MILA EUROKO (8.800,00 €) laguntza emakumeei egindako lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- c. Gehienez LAU MILA EUROKO (4.000,00 €) laguntza gizonei egindako lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- d. Gehienez LAU MILA ETA LAUREHUN EUROKO (4.400,00 €) laguntza emakumeei egindako lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.

Kontratazio MUGAGABEAK % 50etik gorako lanaldiarekin egiten badira, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko zenbatekoa) lanaldiarekiko proportzionala izango da.

5.3 Jarraian adierazitako kolektiboetako artista, teknikari eta laguntzaile langabeak ikuskizun publikoetan eta iraupen mugatuko kontratu artistikoekin kontratatzeko laguntzak (407 edo 507 kontratu kodeak):

- Diru sarrerak bermatzeko errentaren/bizitzeko gutxieneko diru sarreraren titularrak edo onuradunak.
 - 35 urtetik beherako pertsonak.
 - Iraupen luzeko langabeak. Iraupen luzeko langabetzat joko dira *kontratatu aurretiko 540 egunetan enplegu eskatzaile moduan izena emanda egon direnak, BITARTEKARITZA DUEN ALTA egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, betiere epe horretako 360 egunez gutxienez langabezia egon badira.*
 - 55 urtetik gorakoak.
- a. Gehienez ZAZPI MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (7.500,00 €) laguntza gizonei egindako lanaldi osoko 6 HILABETEKO EDO HORTIKO GORAKO iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko.
 - b. Gehienez ZORTZI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO (8.250,00 €) laguntza emakumeei egindako lanaldi osoko 6 HILABETEKO EDO HORTIKO GORAKO iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko.

Aipatu diren kolektiboetako pertsonak kontratatzeko laguntzen kasuan, amaierako zenbatekoa ez da izango kontratatu den pertsonaren soldata kostuen eta Gizarte Segurantzaren % 100 baino handiagoa, horren barne direla kontratua amaitzeagatik kalte-ordainak eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzaren kuota dagozkion hobariak eta/edo kenkariak aplikatu ondoren.

Aipatu diren kolektiboetakoak ez diren pertsonak kontratatzeke laguntzen kasuan, laguntzaren amaierako zenbatekoa ez da izango kontratatu diren pertsonen soldata kostuen eta Gizarte Segurantzaren % 75 baino handiagoa, horren barne direla kontratua amaitzeagatiko kalte-ordainak eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzaren kuota dagozkion hobariak eta/edo kenkariak aplikatu ondoren.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZAREKIN KONTRATATZEKO BETEKIZUNAK

Lan kontratazioek gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontratatzan diren pertsonak langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea, BITARTEKARITZA DUEN ALTA egoeran.** Izen emate horren data lan harremana hasteko egunaren aurretikoa izan beharko da. Langabeak ez dira alta egoeran egongo, Gizarte Segurantzako araubide orokorrean edo langile autonomoen araubide berezian, lan harremana hasi aurretiko egunetik gutxienez. Betekizun honen helburuetarako, ez dira kontuan hartuko Lanbiden “zerbitzuen eskatzaile” moduan edo BITARTEKARITZARIK GABEKO ALTA egoeran izena emanda dauden pertsonak.
- b) Kontratazio beharrak Oinarri hauen 5. artikuluan aurreikusi diren tipologietako baten barne egotea eta lan harremana hasteko data **2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra** bitartekoa izatea.
- c) Kontratatu diren pertsonak **Donostian erroldatuta** egotea kontratazioa hasi aurretiko egunetik gutxienez. Gutxienez ere lan harremana hasten den egun bereko eta aurreko eguneko erroldatzea frogatu beharko da. Erroldatze hori ezingo da egin erakunde kontratatzailearekin (onuraduna) lotura duen edozein pertsona fisikoren helbidean, 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo erakunde kontratatzailearekin lotura duen beste edozein erakunderen helbidean, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, baldintza hau betetzeko ondoretarako, ez dira kontuan hartuko kontratatuko den pertsonak iraganean Donostian izandako erroldatzeak, erroldatzea etetearen arrazoiak edozein direla ere.
- d) Lanpostuak enpresaren jarduerarekin lotura zuzena izatea.
- e) Laguntzarekin kontratatuko den pertsonaren lantokia Donostiako mugartean egotea.
- f) **Lan kontratua diruz lagunduko den aldi osoan zehar indarrean mantentzea:**
 - a. Kontratu mugagabeen kasuan, aldi hori 12 hilabetekoa izango da gutxienez.
 - b. Sei hilabetetik gorako iraupen mugatuko kontratu artistikoen kasuan, sei hilabetez mantendu beharko dira indarrean gutxienez.

Lan harremana diruz lagundu den aldia baino lehenago amaituko balitz, laguntza ezetsi egingo da, lan harremana amaitzearen arrazoiak objektiboak izan bada edo enplegatzailearekin zerikusirik izan ez badu salbu, kasu horretan dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo baita lan kontratuaren iraupen eraginkorraren arabera. Lan harremana arrazoi objektiboak direla eta edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta amaitu bada, langile hori ordezkatzeko duen onuradunak emandako laguntza osoa mantendu ahal izango du, baldin eta programa arautzen duten oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen baditu. 30 egun naturaleko epea egongo da, Gizarte Segurantzaren baja gertatzen den data eraginkorretik hasita, beste kontratu mugagabe bat formalizatzeko.

Kontratu berria 15 eguneko epean jakinarazi beharko da gehienez, Gizarte Segurantzaren alta ematen zaionetik. Horren ondoren, Donostia Sustapenak dirulaguntza mantentzeko egin behar dituen izapideak azalduko dizkio enpresari.

Eman den dirulaguntzaren zenbatekoa bere horretan mantenduko da baldin eta bi kontratazioen iraunaldiaren batura hasierako kontratuaren iraunaldiaren parekoa bada gutxienez edo, kontratu mugagabeen kasuan, derrigorrezko 12 hilabeteko aldira iristen bada.

Ordezkapen hori ez da posible izango bi kontratuen iraunaldiaren batura ez bada derrigorrezko 12 hilabeteetara iristen 2026ko abenduaren 31 baino lehen.

- g) **Kontratazioek enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute**, diruz lagundutako kontratuarekin sartu diren pertsonak iritsi aurretiko SEI (6) HILABETEETAN enpresak zuen batez besteko langile kopuruarekiko alderatuta.

Kalkulu hori egiteko, kontuan hartuko da diruz lagundu nahi den kontratazioaren egunean altan zeuden langileen batez besteko kopurua kontratazioaren aurreko SEI (6) HILABETEETAN altan zeuden langileen batez besteko kopurua baino handiagoa izatea. Datu hori egiaztatzeko Gizarte Segurantzak egindako bi "Alta egoeran dauden batez besteko langileen txosten" entregatu beharko dira; bata kontratuaren egunaren aurretiko SEI (6) HILABETEETAN dagokiona eta bestea diruz lagundu nahi den kontratazioaren egunari dagokiona.

Adibidez: 2025eko ekainaren 15ean gauzatzen den kontratu batek langileen kopuru garbia areagotu izana egiaztatzeko, txosten hauek entregatu beharko dira:

- 1. 2024ko abenduaren 15etik 2025eko ekainaren 14ra bitartean alta egoeran egon diren langileen batez besteko kopuruaren txostena.*
- 2. 2025eko ekainaren 15etik 2025eko ekainaren 15era bitartean alta egoeran egon diren langileen batez besteko kopuruaren txostena.*

- h) Kolektiboetako langabeekin egiten diren kontratazioak jarraian adierazitako tipologietako baten barne egon beharko dira:

- DSBE/bizitzeko gutxieneko diru sarreraren titularrak edo onuradunak.

- 35 urtetik beherakoak kontratuaren datan.
- Iraupen luzeko langabeak: iraupen luzeko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 540 egunetan enplegu eskatzaile moduan izena emanda egon direnak, bitartekaritza duen alta egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, betiere epe horretako 360 egunez gutxienez langabezian egon badira.
- 55 urtetik gorakoak kontratuaren datan.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango kontratazio hauek:

- % 50etik beherako lanaldiarekin egiten diren kontratazioak, kontratu mugagabeen kasuan.
- Lanaldia aldatu zaien kontratuak, hasiera batean kontratatu zen lanaldia areagotzeko aldaketak izan badira salbu.
- Oinarri hauetako 5. artikuluan adierazi direnak baino txikiagoak diren kontratu aldi edo iraunaldia duten kontratazioak.
- Onuradunarekin lotura duen edozein pertsona fisikoren kontratazioa, baldin eta lotura hori 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergarenak, 42. artikuluan aurreikusten dituenetako bat bada.
- Onuradunaren ezkontidearen, izatezko ezkontidearen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera) edo bigarren mailara arteko aurreko, ondorengo edo zehar ahaidearen kontratazioa, ahaidetasuna odolezko, ahaidetasunezko, izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoa edo adopziozkoa bada ere, edo onuradunari lotutako pertsona baten kontratazioa, 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergarenak, 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Enpresa berean jadanik laguntzaren bat jaso duen kontratazioa izan duten pertsonen lan kontratazioak, laguntza hori deialdi honetakoa zein enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako aurreko deialdi batekoa izan bada ere.
- Enpresa berean edo ondare sozietate bat ez den enpresa eskatzaileari lotutako beste erakunde batean –2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergarenak, 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera– kontratazioaren aurretiko 12 hilabeteetan izaera mugagabeko zerbitzuak eman dituzten pertsonekin egindako kontratuak.
- Ez dira onartuko aldizkako kontratu finkoak edo aldi baterako kontratuak mugagabe egiteko bihurketak.
- Ez dira onartuko laguntza eskatu ondoren egindako kontratuen luzapenak.
- Ez dira onartuko ere kontratuen baturak. Dirulaguntzaren laguntza bakoitzean kontratu bakarra onartuko da.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan zerbitzu eskatzaile moduan edo BITARTEKARITZARIK GABEKO ALTA egoeran izena emanda dauden langabeen kontratazioak.

Onuradun bakoitzeko **2 laguntza** emango dira **gehienez**.

Donostia Sustapenak eskubidea izango du aurreko betekizunetako edozein egiaztatzeko helburuarekin edozein dokumentazio edo informazio gehigarri eskatzeko.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateraezinak izango dira helburu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, administrazio edo erakunde nazional publiko zein pribatuetoakoak badira ere, gizarte segurantzaren hobariekin izan ezik.

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, ezarritako “de minimis” arauak.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabideak aurkezteko epea **2026ko urtarrilaren 8tik laguntza horretara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte izango da** (kasu horretan, agortzea Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) **edo, agortuko ez balira**, deialdia itxi arte, hau da, **2026ko otsailaren 2ra arte**.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, funtsak gelditzen badira edo zuzkidura ekonomikoa zabaltzen bada eta Donostia Sustapenak egokitzen jotzen badu, eskabideak aurkezteko epea zabaltzeko ahalko da Oinarri hauen aldaketa bidez. Kasu horretan, egokiak diren kanaletan argitaratuko da.

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak erabat bete beharko dira eta behar bezala sinatu beharko dira. Sinatu beharreko dokumentazioa digitalki sinatuko da.

Informazioa jasotzeko edo zalantzak argitzeko 943 482800 telefonora dei daiteke edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatz daiteke, gai hau adierazita: “KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK 2025”

Jendaurreko arreta ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean adierazitakoa izango da.

Laguntza ekonomiko hau eskatzeko interesa duten enpresek edo erakundeek dokumentazio hau bidali beharko dute:

ERANSKINAK:

1. **“Eskabidea” eranskina.**
2. **“Bankuko datuak” eranskina**, dagokion bankuaren zigiluarekin. Bankuko datuen eranskina edo agiri baliokidea.
3. **“Kontratazioaren datuak” eranskina.**

ENPRESAREN DOKUMENTUAK:

4. **Eskatzailearen NANaren** kopia, pertsona fisikoa bada.
5. Pertsona juridikoa bada, **eskatzailaren IFKren** kopia eta, egokia bada, sinatzailearen NANaren kopia.

KONTRATAZIO DOKUMENTUAK:

6. **Lan kontratuaren kopia.** Hor adierazi beharko dira lanpostua, iraunaldia, lanaldia eta lan zentroa.
7. **Lan kontratuaren komunikazioa.** Hor adierazi beharko da garatuko den okupazioa.
8. **Kontratatu den pertsonaren NAN / AIZren** kopia.
9. Lanbidek emandako **“Izen emate aldien txostena”**, kontratazioa hasi ondorengoa.
10. Gizarte Segurantzak emandako **langilearen lan bizitza osoa**, diruz lagundu nahi den kontratua hasi ondorengoa.
11. Donostiako Udalak emandako **errolatatze ziurtagiria**, kontratuaren xede den pertsonaren kontratazio egunaren ondorengoa, edo hori eskatzeko Donostia Sustapenari emandako baimena.
12. Gizarte Segurantzak emandako alta egoeran dauden **batez besteko langileen txostena, kontratazio egunaren aurreko sei hilabeteei dagokiena.**
13. Gizarte Segurantzak emandako alta egoeran dauden **batez besteko langileen txostena, kontratazio egunari dagokiona.**
14. Diru sarrerak bermatzeko errentaren/bizitzeko gutxieneko diru sarreraren titularrekin edo onuradunekin egindako kontratazioen kasuan, **egoera hori egiaztatzen duen Lanbideren ziurtagiri bat** aurkeztu beharko dute.

Interesdun batek, Donostia Sustapenaren laguntza programa batean parte hartzeko, dokumentu horietako bat aurkeztu badu aldez aurretik, ez du berriro aurkeztu beharko, baldin eta dokumentuak indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Onuradunak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, bai eta aurkeztu diren gainerako dokumentuen egiazkotasunari dagokiona ere.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak, dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen badu osatugabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko hamar egun baliodunen epe barruan, eta ohartaraziko dio ere akatsa zuzendu ezean eskabidea kanpo geldituko dela, izapide gehigarririk gabe, horren inguruko ebazpena emanda. Donostia Sustapena.

Zuzenketak posta elektronikoz jakinaraziko dira onuradunak harremanetarako helbide elektroniko gisa emandako helbidean. (Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web aplikazioan kontsultatu ahalko dira, espedientearen barruan.

Zuzenketak egiteko eskatu den dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskabidea aurkezteko erabili zen kanal bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan kontsultatu ahalko dira, espedientearen barruan.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Eskabideak erregistro ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, laguntza honi esleitutako baliabide ekonomikoak agortu arte, Oinarri hauen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskatutako laguntza ebazteko epea sei hilabetekoa izango da eskabidea erregistratzen denetik hasita, epe horren barruan zenbatu gabe dokumentazio administratiboa zuzentzeko garaiak. Laguntza emateko ebazpena ezarritako epe barruan emango ez balitz, horrek ez du esan nahiko laguntza eman denik.

Eskabidea ebazteko unean, Donostia Sustapenak berrikusiko du eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. Oinarri hauen arabera ebazpen helburuetarako beharrezkoak ez diren eta eskabidearekin batera aurkezten diren gainerako dokumentuak ez dira halaberrez aztertuko laguntza ebazterakoan.

Laguntza ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen arrazoitu bidez egingo da, kontuan hartuta Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak bete diren ala ez.

Ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie posta elektronikoz, Eskabidearen Eranskinean “jakinarazpenetarako helbide elektroniko” gisa adierazitako helbidean. Halaber, web aplikazioan ere aurkituko dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espediente barruan, eta aplikazio horretan argitaratuko da onuradunen zerrenda.

Deialdi honen inguruko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikora. Horrez gain, webgunearen ere argitaratuko dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espediente barruan.

Emandako ebazpenarekin ados ez egotekotan, alegazioak aurkeztu ahalko dira, gehienez ere hilabete bateko epe barruan ebazpenaren datatik hasita, eta Donostia Sustapenak erabakitzen duena onartuko da. Bestela, bi alderdiak Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Era berean, Donostia Sustapenak erreserbako eskabideen zerrenda bat sortu ahal izango du, aurrekontu nahikoa ez izateagatik diru laguntzarik gelditu diren eskabideekin, ondoren, aurrekontua lortzen bada, eskabide horiek onartzeko aukerarekin.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Diruz laguntzeko moduko gastutzat onartuko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin lotura dutenak eta Oinarri arautzaile hauetan ezarritako epe barruan egin direnak.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikagarria izango zaie, berariazko bidaltze bidez, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua.

Laguntza ordainketa bakarrean emango da, emandako zenbatekoaren % 100agatik, kontratazioa hasi eta 12 hilabete igaro ondoren zenbatzen hasiko den bi hilabeteko epe barruan aurkeztu beharko den amaierako justifikazioa jaso ondoren. Nolanahi ere, justifikazioa aurkezteko mugako eguna **2026ko abenduaren 31** izango da.

Garaiz eta behar bezala aurkeztuko ez balitz edo oinarrietan eskatzen diren betekizunetako bat betetzen ez dela ikusiko balitz, jaso duen ekarpen osoa itzuli beharko du onuradunak, 13. klausulan xedatutakoarekin bat.

Hona hemen **AMAIERAKO JUSTIFIKAZIOAN** aurkeztu beharko den dokumentazioa:

- 1 Pertsona kontratatuaren **“Afiliatuaren lan bizitzaren txostena”**, laguntzarekin bat datorren iraunaldian eta lanaldian zehar enpresan lanean aritu dela frogatzen duena.
- 2 Pertsona kontratatuaren **kotizaziorako datuen txostena** (IDC, gaztelaniaz) - Besteren konturako langileak, justifikazio aldia barne hartzen duena.
- 3 **Justifikazio eranskina**: horren barne direla dirulaguntzaren iraunaldian izandako kostu eraginkorra (soldata eta gizarte aseguruak) laburbiltzen duen memoria finantzarioa eta helburu bererako beste laguntza batzuk jaso edo eskatu ez izanaren erantzukizunpeko deklarazioa.
- 4 **Nominen, gizarte aseguruen eta horien ordainagirien kopiak**. (Langileak sinatu duen nomina batek ordainagiri baten balio bera izango du).

Dokumentazioa bitarteko telematikoz aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek DLOaren 14. artikuluan aurreikusitako betebeharrak orokorrak onartuko dituzte, ondore hauetarako berariaz aplikagarritzat joko baita, betebeharrak hauek barne hartuta (adibide moduan eta mugarik gabe):

- a) Laguntza erabiltzea diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko.
- b) Diruz laguntzeko moduko gastuen frogagiriak aurkeztea, ezarritako moduan eta epe barruan.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketetan eskatu ahal diren bitartean eta, edozein kasutan ere, araudi aplikagarrian ezarritako epean zehar.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztien kontabilitatea eramatea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala mantentzea, betebeharrak hori duenean.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.
- g) Laguntzak jasotzeko kontuan hartu diren inguruabar subjektibo zein objektibo guztien aldaketa guztiak Donostia Sustapenari jakinaraztea.
- h) Donostia Sustapenak, bere eginkizunen esparruan, eskatzen duen emandako laguntzei buruzko informazio guztia ematea.
- i) Donostia Sustapenari jakinaraztea xede bererako jasotzen diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo bestelako baliabideak.
- j) Donostia Sustapenak jasotako laguntzaren inguruan antolatzen dituen jardunaldietan (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.) parte hartzea.
- k) Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzaren eskabidean adierazitako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabar. Egokia denean, Donostia Sustapenari laguntzea finantza kontrolerako jarduketetan eta egiten dituen egiaztapenetan, haren eskura jarrita eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- l) Laguntza jaso duen jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak edukitzea.
- m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanda) komunikazio euskarrietan (webgunea, gizarte sareak, posta elektronikoak, megafonia, etab.), sustapen eta hedapen materialen edizioan eta antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, etab.
- o) Erakunde eskatzaileek Donostiako Udaleko euskara zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko dute testuak itzultzeko eta testuak zuzentzeko (itzulpenek gehienez ere 1.000 karaktere izango dituzte hilean eta, zuzenketek, 9.000 karaktere), betiere zerbitzuaren betekizunak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>).
- p) Erakunde eskatzaileek berariaz jakinaraziko diete Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ekarpena onuradunei eta herritarrei oro har.

13. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Onuradunak jasotako ekarpena itzuli beharko du, gehi diruaren legezko interesa –ordainketa egin zen momentutik hasita–, kasu hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez betetze larri eta errepikatua. Ez betetze larri eta/edo errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetako betebeharrak bat edo gehiago ez betetzea, behin baino gehiagotan; emandako datuen, ziurtagirien, txostenen eta/edo dokumentazioaren faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako laguntza guztia edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren xedeetarako erabiltzea.
- Oinarri hauetan aurreikusitako ekarpenaren erabilera, betekizunak edo betebeharrak epe barruan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo behar adina ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskatze jardueri aurka egitea, aitzakia jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, eta kontabilitate, erregistro edo dokumentuen kontserbazioaren arloetako betebeharra ez betetzea baldin eta horren ondorioz jasotako ekarpenei emandako erabilera egiaztatu ezin bada, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna egiaztatu ezin bada, edo administrazio edo erakunde publikoen zein erakunde pribatuen eskutik –nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak– xede bererako jaso diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak egiaztatu ezin badira.
- Jarduerak gehiegizko finantzaketa izango balu, xahutu ez den zenbatekoa edo soberako finantzaketa itzuli beharko da.
- Kontratua arrazoi objektiboen edo enplegatzaileari egoztekoak ez diren arrazoen ondorioz hutsaltzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren betekizunak bete eta momentu oro mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzea eskatu ahalko du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Halaber, ez betetze kasu larrietan, esaterako, datuen faltsutasuna edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea, Donostia Sustapenak ahalmena izango du emandako laguntza deuseztatze eta, kasu horretan, jasotako zenbateko guztiak itzultzea eskatzeko, bost aldiz jasotako zenbatekoaren baliokidea den zenbatekoa ordaintzea eskatzeaz gain.

Donostia Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako egoeraren bat gertatu dela egiaztatzen badu, ekarpena itzuli beharko da, jarraian adierazitako baldintzetan.

Itzulera laurogeita hamar (90) egun naturaleko epe barruan egingo da, Donostia Sustapenak burofax bidez artikulua honetan aurreikusitako itzulera egoera baten egiaztapena onuradunari bidaltzen dion egunetik zenbatzen hasita.

Era berean eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Donostia Sustapenak eskubidea izango du Donostia Sustapenak eskainitako beste edozein laguntza edo onuretan parte hartzea galarazteko, BI (2) URTETAN zehar, Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez duten edo fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

14. ARTIKULUA. LAGUNDUTAKO FINANTZAKETA

Laguntza hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko laguntzen deialdiaren esparruan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2025eko uztailaren 15eko akordio bidez onartu zuena eta 2025eko uztailaren 31ko EHAAn argitaratu zena.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dagoen datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da zeuk emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa jardunda. Informazioa Donostia Sustapena, S.A. sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragilea den heinean.

Tratamenduaren xedea zure laguntza eskabidea izapidetu eta kudeatzea izango da.

Tratamenduaren legitimotasun oinarria izango da Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak (DBEO) 6.1.e) artikuluan xedatutakoa: tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, uztailaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen; 2/2016 Legea, uztailaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra (DLO).

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da, eta informazio hori ez emateak edo datu okerrak emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak, egokia denean, laguntzen finantzaketan parte hartzen duten eta/edo Donostia Sustapenarekin laguntzak kudeatzeko lankidetzan aritzen diren beste erakunde nazional edo nazioz gaindiko erakunde batzuei lagatzea gerta liteke, betiere lagapen hori beharrezkoa bada eta laguntzak kudeatzeko helburuetarako soilik.

Halaber, jakinarazten da laguntza emateak onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea ekarriko duela, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko baitira.

Ez da aurreikusi hirugarrenei zuzendutako datuen komunikazio gehigarririk, legezko betebeharririk izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziarik ere.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gordeko dira jaso ziren helburua betetzeko beharrezkoa den denboran zehar eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizun posibleak argitzeko beharrezkoa den denboran zehar. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa aplikagarria izango da.

Interesdunek atzipen, zuzenketa eta ezabaketa eskubideak baliatu ahalko dituzte, indarrean dagoen datuen babeserako araudian aurreikusitako gainerako eskubideekin batera, hala

dagokienean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean, helbide honetan: Easo kalea 41, 20006 Donostia / San Sebastián.

Norberari dagozkion eskubideak baliatzean behar bezalako arreta ez jasotzekotan, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, aldeztu aurretik eta hautazko moduan, Donostiako Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko aukera izango du interesdunak: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onarpena.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira eta argitalpen horren hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek, eskabidea aurkeztean, erabat onartuko dituzte Oinarriak.

Erantzukizunak baztertzea

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurretik edo ondoren izandako jarduketan ondorioz edo jardueraren ondorioz eragindako kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra eta Donostia Sustapena kontzeptu hauen gaineko erantzukizun orotatik libre utziko du.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Emandako laguntzak Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arautuko dira eta, modu osagarrian, DLOan eta DLOa garatzeko Erregelamendua (aurrerantzean, DLOE) onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutako arauen arabera, baina bakarrik DLOan ezarritako kudeaketa printzipioei eta bere 20. artikuluan aipatutako informazio printzipioei dagokienez; hori guztia aplikazio hori ezartzen duen DLOaren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera. Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2025eko uztailaren 23an onetsi zuen Ebazpenean ageri den enplegua sustatzeko tokiko laguntzetarako 2025 ekitaldiko deialdian xedatutakoaren arabera ere arautuko dira emandako laguntzak, modu osagarrian.

Gainerako kasuetan, aipatu DLO eta DLOE testuak aplikagarriak izango dira bakarrik Oinarri hauetan legezko testu horiek berariaz aipatzen diren alderdietarako.

Donostian, sinaduraren datan.

Ane Oyarbide Ochoa

Ekonomia eta Tokiko Enplegu zinegotzi ordezkaria.